

Session 2014

**CONCOURS DE RECRUTEMENT
DE PROFESSEURS DES ECOLES**

"Concours Spécial"

**Épreuve écrite
BASQUE**

Du 28 avril 2014 de 13h30 à 16h30

Durée : 3 H - Coefficient : 2

L'usage des calculatrices et du dictionnaire est interdit.

Ce sujet comporte 4 pages numérotées de 1/4 à 4/4.
Assurez-vous que cet exemplaire est complet.
S'il est incomplet, demandez un autre exemplaire au chef de salle.

BIRITXIAK

Bainan ilhuna etorri denean dauka etxe barneak bere gozorik handiena.

- 5 Goizik afariten ginen: ez direa neguko gauak osoan lo egoiteko, udakoen orde, eta zendako ar argi erretzen?... Opor esnea huts, harrietan hau erretik; haren ondotik, gaztenaz ase, gero, bederatzietako oherat, berantenaz.

- 10 Gaztenak, paderatik atheratzen ziren sukaldearen erdirat, han baitzagoden estalirik, epeldu artio, bahe baten barnean. Huni, inguruan jartzen gintzaizkion denak. Luza zezala besoa bat bederak eta ahurrean har, behingotz, bihika zenbeit... Elheketa, egun hartako gora-beherak gure artean ihardukiz, batzu eta bertzeak aiphatzen ginituelarik, hok ephe berean egiten gintuzketen bezala, bagineraman emeki emeki bahetara guzia, ez baitziren azalak baizik gelditzen.

- 15 Bainan udare idorra da gaztena, artetan ahoa bustiz baizen ez doakizu zintzurra beheiti. Beharrik baikinuen mineta bat hauta, gorri arin, garbia; barrikako mahats lapari; gain behera, urarekin batean bizpalau pint'arno ixuririk, egina. Nago, hain baitzen ona, egarri ginen baino ardurago ez ginuenez hurrupatzen; eta, orai ere, jastatzeko tirriak ez othe dautan jauzarazten ahogozoa. Etzaut iduritzen baditakela hura baino edari hoberik.

- 20 Eskualdun ohitzak ginauzkan: aita edan lehenik, gero semeek, adin arau, lerroan, gero alabek, azkenik amak, bazterretik ere baitzagon ardura, zerbitzari.

- 25 Apairuaren ondotik, hoztuak baiginituen ordukotz zangoak, supazterraren inguruan jartzera gindoazin. Aitak hartzen zuen xokoa, alkian. Sehia eta hiru arreba larrienak orratzarekilako esku-lan zerbeiti lotzen ziren. Gu, bi aneia gehienak, erdian. Aitaren eta amaren artean zuten behar kokatu, ez gogotik, bi ttipienek, familiako ederrenak hek, bi aneia arreba biritxi, adin bereko bezala hein bereko, eta eite handikoak. Ondarrik sorthuak zirelaketz eta sabeltara batetakoak, nahiz muttikoa gotorxago, itsutuki maite zituzten aitamek.

- 30 Hango goxo orduan, oro elgarretarat bildua, zangoaz surat, argi bakar batek uzten zaungun erdi-ilhunbe eztian begi beharriak erne, atheko erauntsien zafraldiak bihotzminik gabe aditzen ginituelarik!

- 35 Su gaitza ginduen bethi, hirian egiten ohi diren ez bezalakoetarik: ametz – ondo, abar ihartu, zukur, ezpal, baginemokon zer nahi. Gar handiak arraitzen zaungun alabainan begitartea, eta oinak bezenbat barnea berotzen. Mendian suak zaintzen balin badu gizona ihizi ala kabala gaixtoetarik, etxean are gehiago adixkide dauka: argitzen du, zalhutzen, gogoetarazten duelarik artetan, halako histuraño batekin, nundik sortzen othe den khe hura, norat doazin pindar hek, ahurtara bat hautsetan nola suntsitu ditazken hainbertze egur hain lodiak...

- 40 Solasean apur bat egon ondoan, guziz seme alaba ttipiekin, kantuz hasten zitzaukun aita. Ordu berean gu oro ixilik, hari beha. Ardura kantua bera zuen: baitzakien, hainbertze aldiz bere inguruan aditurik, zoin ginuen laketena: *Hamar gizon hiltzaleen kantua*. Neurthitz andana handia zaukaten, launazka josiak, oro latz, oro ilhun, oro deihadar, oro kanit eta makil ukaldi, oro heriotze. Hanbatenaz ere bere izigarrian sarkorrigo non bietan emanak baitzauzkigun koblak, emeki, luzatuz,
- 45 noizetik noizera izpi bat ikharatuz boza.

Arrats guti bazoan gure amak artetik aitari galdegin gabe:

- Jes, Joanes, egiak direa bada horiek guziak?

Kexaturik bezala, begietan haatik irriño batekin, berehala ihardesten zakon bere Baxenabartar hizkuntza pollitean:

- 50 – Egiak direnez?... Nihauk ikusi nintzin, emaztekoa!

Are gehiago harriturik baiginauden orduan gu, haurrak, kantuaren entzuten.

55 Aldi batez bizkitartean – bethi gogoan daukat, ene haurtasuneko orhoitzapenik hunkigarriena baita – etzuten luzaz utzi biritxiek aita. Tarrotuxeak ziren ordukotz; bortzpaseira urte. Maiz lanak emaiten baitzituzten geldirik ezin egonez elgarren ondoan, arrats hartan nehon etzauzken; mezuka elgarri, zimikoka, irriz, erasian.

Arreba gehiena bildua zuketen aitzinetik; ezen, aitaren baimena ardietsirik, kantu bat eman zuen harek ere, bainan dantza kantu bat. Ordu berean bi aneia arreba ttipiak sukaldearen erdirat jauzteka, eskutik elgarri zatxikitela.

60 Eta, elgarri lothurik, dantzan hasten, inguru, inguru, barne guzia hartuz. Eliza- phestaz geroztik tirrian omen ziren, egun hetan plazan ikusirik mutik eta neskato gazteak birazka zabiltzala halaxet, jauzi, itzulika. Haurrek, jende larrien ihakina egin artio, ez onik.

65 Beha egon ginintzeiezen xoraturik, hain baitziren pollitak eta maitagarri beren zango ñimiñoen gainean harathunat ibilki adinez, begitartez, mintzoz, berdintsu, senhar emazte ttipi batzu orain iduri (hek, aldi batez elgarrekin sorthuak), pikoen hatzemaitera beharriak berek uste etzutelarik lehiarazten zituela, nexka zalhoinago bizkitartean eta kasik ja ikasia bere baitharik.

70 [Bainan laster akitu ziren eta apur bat kexatu ere, sahetsetik jostetan igortzen giniozten kitzikez gaitziturik. Gorrituak, kaldan, hats-hantuak, samur, etzuten nahi ukan gehiago sarthu aitamen arterat, su handiari hurbil. Urrundu ziren sukaldearen haindiko zolaraino eta, han, elgarri kontra, kadera ttipi bederaren gainean jarri, guri beha tente, artetan izerdia xukatzen zutelarik.

75 Ahantzi ginituen xoko hartan, gutarteko solasari jarraitzen ginelarik. Ephe luzea iragan zen. Bat- batean horra nun aitak, itzulirik heier buruz eta erhiaz erakusten zauzkularik, ohartarazten gaituen, erranez:

- Beha, beha... Gaixoak!

Nigarra begirat jin zitzakon, bihotza tanpez beraturik.

Biritxiak lo zauden, lo xurrungan: aneia xut, bere alkiari bizkarraz, matela koskoak gorri gorriñoak; arreba haren aldean, belhaunaren gainerat burua uzkailla }
80 zagokola... }

Buruxkak, Jean Etxepare, 1910

Udare = fruitu

Kaldan = izerditan

COMMENTAIRE GUIDÉ

Testu iruzkina eginen duzu ondoko ardatzen inguruan :

1. Familia barneko giroa eta lotura
2. Ahozko euskal literatura eta honen transmizioa

ITZULPENA

Testuko azken lerroen itzulpena egin ezazu « *Bainan laster akitu ziren 68.l...burua uzkaillia zagokola...80.l* » arte.